

Aurten, 30 umek eta gaztek baino gehiagok parte hartu dute FEVAPASen **SOZIALIZAZIO-JARDUERETAN**.

Jardunaldietan, honako hauek egin dira, besteak beste: Emozioei, aniztasunarekiko errespetuari eta bullyingari buruzko tailerrak - Jarduerak abentura-parkean eta baserri-eskolan.

Guztiak elkarrekin hamaika gauza ikasi dituzte berriro; beste errealitate batzuk ezagutu dituzte eta, hain ongi pasatu dute, errepikatu nahi dute.



LANGILE BOLUNTARIOEI eta astialdiko monitoreei esker, aurten ere, sozializazio-jarduerak arrakastatsuak izan dira-Jarduera horiek programatzen eta gauzatzen jarduten dute elkarlanean.

Era berean, prestakuntzako bi **JARDUNALDI**-tailerretan parte hartu dute, federazioak antolatutakoetan: maiatzean eta irailean, egunean lau orduz, edukien programazioaren, ebaluazioaren eta egokitzapenaren inguruan hausnartu dute, federatutako elkarteetako gazteenek eginiko irteerez gozatzeko.

FEVAPASek, **FAMILIA-PROGRAMA**ren bidez, federatutako elkarteak koordinatu ditu, batera, familiei arreta eta laguntza emateko lanean.

500 **FAMILIA** baino gehiago dira FEVAPASeko elkarkide, eta federazioa eratzen duten hiru elkarteek ematen diete arreta -informazioa, orientazioa, prestakuntza, laguntza psikologikoa, hausnarketa- eta laguntza-taldeak, koordinazioa, ordezkaritza, etab.-.



FEVAPASek gogorarazten dizue Gipuzkoan **ARANSGI**ren ateak, Araban **ASPASOR**renak eta Bizkaian **ULERTUZ**enak zabalik daudela zuontzat guztiontzat.

Haietan sartzera gonbidatzen zaituztegu, eta haien jardueretan parte hartzera eta, beraz, **FEDERAZIOAK** antolatutako jardueretan.

GUZTIOK ELKARREKIN, ASKOZ HOBE

FEVAPASek -Aranggi, Aspasor eta Ulertuz-

JARRAITZEN DU LANEAN ezarrita dauden legeak bete daitezzen eta ume eta gazte gorrek eta haien senitartekoek bizitzako eremu guztietara baldintza-berdintasunean jo ahal izateko.

Horretarako, nahiz eta, askotan, lan nekeza izan, erakundeek gutxiesten eta isilarazten dituztelako, jarraitzen dugu Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkariekin bilerak egiteko eskatzen.

Aurten, honako hauekin batu gara:



HEZKUNTZAREKIN, otsailean eta urrian, hezkuntza-berrikuntzako arduradunekin.

OSASUNAREKIN, azaroan, plangintza eta antolamendu sanitarioko zuzendariarekin.

Basurtuko OSASUN MENTALAREKIN ETA GORTASUNAREKIN, urrian, zerbitzuko buruarekin eta profesionalarekin.

GIZARTE-POLITIKEKIN, apirilean, gizarte-zerbitzuetako zuzendariarekin.

Intereseko **BESTE BATZUK**: Euskal Gorra / EDEKA / foru-aldundiak, udalak eta beste entitate publiko eta pribatu batzuk.

2022an, FEVAPASek bi **online HITZALDI** antolatu ditu, eta haien gai nagusia

Gortasuna eta Osasun Mentala izan da

Maitzaren 10ean eta azaroaren 22an, berrogei ama, aita, kaltetu eta profesional inguru, ordu eta erdiz, honako hauekin konektatu ziren: Ana García García eta Verónica Pousa Rodríguez.

Madrilgo Gregorio Marañón ospitaleko eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko (Bilbo) Osasun Mentaleko eta Gortasuneko Unitateetako psikologo klinikoak, hurrenez hurren.

Hitzaldi horietan, pertsona gorren komunikazioak, detekzioak, prebentzioak eta osasun mentalarekiko arretak duten garrantziaz hitz egin zuten. Bietan izan ziren azpitoluak eta zeinu-hizkuntzaren interpretazioa.

